

BIDALDIA AURKEZPENA

BASAMORTUKO BIDALDIA :

Abentura bizi-bizia, ebatzi beharreko misterioz osatua

4x4 auto batean 5 izanki, basamortuaren handitasunean barna ibiliko zarete, nabigazio mapa bat eta 15 urrezko txanpon eskutan.

Bidaian zehar, paisaia anitz deskubrituko duzue, eta gaitzeko jende eta animaliak gurutzatuko.

Bidaldian zehar, enigmak eta ebazteko buruketak proposatuak izanen zaizkizue, zailtasun hein bat aukeran izaki.

Lortuko dituzuen enigmei esker ondoko txanponak irabaz ditzakezue :

- 1 urrezko txanpon enigma berdearentzat
- 3 urrezko txanpon enigma liranjarentzat
- 5 urrezko txanpon enigma gorriarentzat.

Bestalde, zailtasunetan bazarete, laguntzak erosteko aukera izanen duzue. Laguntza bakoitza urrezko 3 txanpon kosta da.

Bidaldi hau garaitzeko talde bakoitzean, elkarrekin, zuen ezagutza guztiak erabili beharko dituzue, zailtasunaren aitzinean makurtu gabe : xerkatu, marraztu (errepresentatu), kalkulatu, komunikatu


atsedenik gabe, helmuga ahal bezainbat urrezko txanponekin iragaiteko.

Abiatzea gaur da, 2019ko martxoaren 11
eta helmuga 2019ko martxoaren 15a

Txanpon gehien lortuko duen talde irabazleak diploma bat eskuratuko du.

(edo : Azken egunean, basamortuan bezala tea edanen dugu eta txanponekin Marokoko pastizak erosten ahalko ditugu!)

Suerte on guziei !



NABIGAZIO MAPA

autoko bidaiarien izenak



.....

.....

.....

1 ENIGMA 1. ZIKLOA

PIRAMIDEA

Lara Baladi egiptoar artista bat da. Gainezartzen diren montaketa/kolaketekin lan egiten du.

Piramideen bisita eginik, triangelu batzuk kolatuz obra berri bat sortu du.

6 triangeluekin puzzle bat egin du. Horra :

Puzzle hori berriz egin dezakezue ?

Kasu, triangelu batzuk parte batez baizik ez dira gainezarri behar.

1 ENIGMA 2. ZIKLOA

PIRAMIDEA

Lara Baladi egiptoar artista bat da. Gainezartzen diren montaketa/kolaketekin lan egiten du.

Piramideen bisita eginik, triangelu batzuk kolatuz obra berri bat sortu du.

10 triangeluekin puzzle bat egin du. Horra :

Puzzle hori berriz egin dezakezue ?

Kasu, triangelu batzuk parte batez baizik ez dira gainezarri behar.

PIRAMIDEA

Lara Baladi egiptoar artista bat da. Gainezartzen diren montaketa/kolaketekin lan egiten du.

Piramideen bisita eginik, triangelu batzuk kolatuz obra berri bat sortu du.

10 triangeluekin puzzle bat egin du. Horra :

Puzzle hori berriz egin dezakezue ?

Kasu, triangelu batzuk parte batez baizik ez dira gainezarri behar.


2 ENIGMA 1.ZIKLOA

EGIPTOARREKIN KONTATU ETA KALKULATU

Gaur Abinarekin hitzordua dut. Egiptologoa da eta Cairoko museoa bisitaraziko dit.

Ba ote dakizue Egiptoarrek gauza frango asmatu dutela ? Adibidez : hortzetako pasta, etxeen hesteko sarriak, bowling jokoa, papirusa, landare baten zurtoinekin ekoitzia den paper mota bat eta ... Zenbakien idazteko molde bat, gurearen arras ezberdina !

Eskribau horri beha iezaiozue ! Egiptoko baserri bateko animaliak kontatzen ditu eta bere pergaminoan idazten du !



Papirusean idatzi dudana irakurriz,
animalien kontatzen eta galderei erantzuten
lagunduko nauzue ?

Laguntza gisa, zenbakien taula erabiltzen

2 ENIGMA 2.ZIKLOA


EGIPTOARREKIN KONTATU ETA KALKULATU

Gaur Abinarekin hitzordua dut. Egiptologoa da eta Cairoko museoa bisitaraziko dit.

Ba ote dakizue Egiptoarrek gauza frango asmatu dutela ? Adibidez : hortzetako pasta, etxeen hesteko sarrailak, bowling jokoa, papirusa, landare baten zurtoinekin ekoitzia den paper mota bat eta ... Zenbakien idazteko molde bat, gurearen arras ezberdina !

Eskribau horri beha iezaiozue ! Egiptoko baserri bateko animaliak kontatzen ditu eta bere pergaminoan idazten du !

!



Papirusean idatzi dudana irakurriz, animalien kontatzen eta galderei erantzuten lagunduko nauzue ?


Laguntza gisa, zenbakien taula erabiltzen ahal duzue .

EGIPTOARREKIN KONTATU ETA KALKULATU

Gaur Abinarekin hitzordua dut. Egiptologoa da eta Cairoko museoa bisitaraziko dit.

Ba ote dakizue Egiptoarrek gauza frango asmatu dutela ? Adibidez : hortzetako pasta, etxeen hesteko sarrailak, bowling jokoa, papirusa, landare baten zurtoinekin ekoitzia den paper mota bat eta ... Zenbakien idazteko molde bat, gurearen arras ezberdina !

Eskribau horri beha iezaiozue ! Faraoiak eskaturik, Niloko haraneko baserrietako animaliak kontatzen ditu eta bere pergaminoan idazten du !



Papirusean idatzi dudana irakurriz, animalien kontatzen eta galderei erantzuten lagunduko nauzue ?

Laguntza gisa, zenbakien taula erabiltzen ahal duzue .

3 ENIGMA 1.ZIKLOA

ITSAS-ARGIRA GOAZEN

**Alexandriako itsas-argiaren aitzinean nago, maiestatezko monumentu horri
beha liluraturik nago.**

Badakit irudi hori bizi osorako memorian grabaturik egonen zaidala.

**Atx ! Gidak ez nau argazkitan hartzen uzten baina papertxo batzuen bidez
irudia berriz osa dezaket**

3 ENIGMA 2.ZIKLOA

ITSAS-ARGIRA GOAZEN

**Arratsalde honetan, Alexandriako itsas-argiaren aitzinean nago, maiestatezko
monumentu horri beha liluraturik nago.**

**Itsas-argia karratu formako oinarri batean pausaturik da eta 137 metroko
goratasuna du.**

**Irakurri dut itsas-argiaren oinarriaren aldeak 178 metro neurtzen duela.
Itzuliaren egitea erabaki dut, alde bakoitza hurbil-hurbiletik segituz baina aski
denbora izanen dudan ez dakit gaua heldu baita...**

Zer distantzia kurritu beharko dut berriz abiapuntura itzultzeko ?

3 ENIGMA 3.ZIKLOA

ITSAS-ARGIRA GOAZEN

Arratsalde honetan, Alexandriako itsas-argiaren aitzinean nago, maiestatzeko monumentu horri beha liluraturik nago.

Itsas-argia karratu formako oinarri batean pausaturik da eta 137 metroko goratasuna du.

Zer distantzia kurritu beharko dut berria abiapuntura itzultzeko ?Irakurri dut itsas-argiaren oinarriaren aldeak 230,35 metro neurtzen duela. Itzuliaren egitea erabaki dut, oinarritik 50 metrotara den bidexka segituz baina aski denbora izanen dudan ez dakit gaua heldu baita...

Zer distantzia kurritu beharko dut berriz abiapuntura itzultzeko ?

4 ENIGMA 1.ZIKLOA

GAMELU eta DROMEDARIO

Oasis batera hurbildu gara, gamelu eta dromedario batzuk ikusi ditugu pentze batean.

Hesiaren gainetik 7 konkorrerik ageri dira baina buruak ez ditugu ikusten.

Zenbat gamelu eta dromedario daude pentze horretan ?

Aterabide bat baino gehiago bada.

4 ENIGMA 2.ZIKLOA

GAMELU eta DROMEDARIO

Oasis batera hurbildu gara, gamelu (2 konkorrerik) eta dromedario (1 konkorrerik) tropa bat ikusi dugu pentze batean.

Hesiaren gainetik 12 buru eta 20 konkorrerik kontatu ditugu.

Zenbat dromedario dago pentze horretan ?

GAMELU eta DROMEDARIO

Basamortu erdian, Ramsès gurutzatu dugu bere gamelu eta dromedario troparekin. Azaldu digu gamelu bakoitzarentzat zaindari bat ezarri nahi lukeela.

Orotara, 21 konkorr eta 52 pata kontatu ditugu.

Zenbat zaindari beharko ote du ?